

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

lurraiz-Gaunako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 200. artikulua idazketa berria, urtarrilaren 19ko 4/2017 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartua

200. artikulua. Eraikitze erabilerei eta jardueri esleitutako hirigintza parametroak

Lurzoru urbanizaezinean egonik zona horretan erabilera baimendurik ez duen eraikin oro "antolamendutik kanpo" geldituko da.

1. Aurreko artikuluan aipatutako eraikuntzako erabilera eta jardueretan, landako biztanlegu-nee i dagozkienetan izan ezik, hirigintzako eta eraikuntzako parametro hauek bete behar dira.

Arau orokor gisa, lurzoru urbanizaezinean dagoen edozein erakikuntzatarako:

- Udalak ingurumen eraginaren eta kontuan eduki beharreko zuzentze neurrien azterlan bat eskatu ahal izango dio haren sustatzaileari, paisaia duen eragina ahalik eta gehien murrizteko. Edozein kasutan ere, nahitaezkoa izango da eraikuntza proiektuarekin batera paisaia integratzeko azterlana aurkeztea, ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoak, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondoko zona hauetan: paisaia bikain edo berezien izaera dutenak (54 zk.ko paisaia berezia, "Arabako Lautadako muinoak"; eta 14 zk.ko paisaia bikaina, "Iturrieta-Entziako malkarrak", eta 21 zk.ko, "Gasteizko mendiak") eta, katalogatutako paisaiari berez dagozkion eremuaren barruan eraikita ez egon arren, ikusle gehien biltzen dituzten tokietatik (biztanleria guneak, komunikazio bideak, ibilbide berdeak, etab.) haren ikuste ezaugarriak eta paisaia kalitatearekin loturikoak bestelakotzen dituzten eraikuntzak.

- Arabako Foru Aldundiaren igarobide ekologikoen izaera duten zonetan eta Eusko Jaurlaritzaren igarobide ekologikoetako gune espazio, lotura eremu eta lotura igarobideetan, horien izaera eta lokarritasuna bermatu eta haiekiko eragina justifikatu beharko da, eraikuntza proiektuan jasotako ingurumen azterlan edo txosten baten bidez.

- Europar Batasunaren intereseko habitatak dituzten zonetan, haien izaera eta onik zaintzea bermatu beharko dira, eraikuntza proiektuan jasotako ingurumen azterlan edo txosten baten bidez.

- Natura Sareko espazioetan edozein eraikuntza erabilera debekatzen da, bidezko arrazoiengatik espazio horietan kokatu behar diren onura publiko eta gizarte intereseko eraikuntzak izan ezik.

- Lurzoru urbanizaezinean eraikuntzak kokatzeagatik nekazaritzan eragina duten eremuetan, landare lurrari dagozkion horizonteak gaika kendu beharko dira eta, ahal delarik, berehala birbanatuko dira edo, bestela, pilatu egingo dira. Landare lurraren helburua, lehentasunez, ingurune hurbilenean nekazaritza lurzorua lehengoratzea edo hobetzea izango da.

Nekazaritza biltegiak, lurzoruaren erabileri lotuta dauden abeltzaintzako ustiatziekin loturiko eraikinak.

– Baimentzen zaizkie lanbidez nekazari diren pertsona fisiko edo juridikoei, abenduaren 23ko 17/2008 Legean, nekazaritza eta elikagai politikarenean, ematen den definizioaren arabera.

– Eraikigarritasuna: 0,30 m²/m², 2.000 m²t-ko gehieneko eraikigarritasunarekin.

– Lotutako gutxieneko azalera: 0,30 ULUri dagokiena, testu honen 201. artikuluko 2. puntuan ezarritako estandarren arabera.

– Lurzati hartzailearen azalera, gutxienez: 5.000 m²t eta 25 m-ko gutxieneko aurrealdea.

– Gehieneko okupazioa: lurzati hartzailearen ehuneko 30.

– Gehieneko solairu kopurua: 1

– Altuera erlaitzera edota teilatu hegalerara: 8 m

Barnean katalogatutako paisaiak hartzen dituzten eremuetan (54 zk.ko paisaia berezia, "Arabako Lautadako muinoak"; eta 14 zk.ko paisaia bikaina, "Iturrieta-Entziako malkarrak", eta 21 zk.koa, "Gasteizko mendiak") erlaitzerako altuera ezin daiteke 6 m baino handiagoa izan.

– Mugetarainoko tartea: 5 m

– Errepideetarainoko tartea: 20/1990 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko errepideenean, ezarritakoak.

– Landa bideetarainoko tartea: otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili eta zaintzekoan, ezarritakoak.

– Abeltzaintza ustiatzeko gorde beharreko tarte bereziak:

Herriguneetara: 300 m

Kontsumorako erabiltzekoak ez diren ur laster eta putzuetara: EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeke ALPn adierazitakoa.

Hornidura putzu eta iturburuetara: 300 m

Hiri lurzoruaren mugarainoko tartea: 300 m

Baldintza estetikoek dagokienez, eraikinaren ingurua errespetatu behar da, diseinuari zein erabiliko diren materialei dagokienez. Estalkia teila edo xafla gorritz egin beharko da.

Minda sortzen duten ustiatzeko, ustiapen motaren arabera, simaurtegiak edo biltegitratzeko andel iragazgaitzak izan behar dituzte, zirkuitu itxiaren bidez ustiatzekoarekin konektatuta. Simaurtegi edo andel horiek bi hilabeteko hondakinak gordetzeko adinako edukiera izan behar dute, gutxienez. Euri urak behar bezala hustu behar dira, hondakin urekin eta simaurrekin nahasi gabe. Putzu iragazleak, gainezkabideak edo kolektore edo ubideetara irteera zuzenak dituzten beste irteera guztiak debekatuta daude.

Putzuek betetzeko behar duten denbora kalkulatu, gutxienez maiztasun berarekin kenduko dira putzuetako lokatzak. Lokatz horiek behar bezala erabili edo deuseztatu behar dira.

Mindak biltegitratzeko andela eraikitzeke aukerarik egon ezean, ustiatzeko behar diren aldatetarako egin beharko ditu sortutako hondakina nagusiki solidoa izateko, likidoak xurgatzeko lastoa edo antzeko moduak erabilia.

Animalia hilak honela deuseztatuko dira: kare bizia duten lurperatze hobietan, errausketa labeetan, kontrolatutako hondakindegietan, edo antzeko instalazioetan. Horretarako proposatutako lekua eta irtenbidea zehaztu behar da.

Txerri azientzen hazkuntzari lotutako jarduerak gai horren inguruan indarrean den legediaren arabera egingo dira.

Mintegiak eta berotegiak:

– Gehieneko okupazioa: lurzati hartzailearen ehuneko 80.

– Mugetarainoko tartea: 2 m

– Errepideetarainoko tartea: 20/1990 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko errepideenean, ezarritakoak.

– Landa bideetarainoko tartea: otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili eta zaintzekoan, ezarritakoak.

– Tartea, gutxienez, ur ibilgu eta masetara:

Kontsumorako erabiliko ez diren ubide, urmael eta putzuetara: EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeke ALPn adierazitakoa.

Hornidura putzu eta iturburuetara: 300 m

Lurraren erabilerari lotuta ez daduen abeltzaintzako ustiategiekin loturiko eraikinak, arrain-haztegiak, nekazaritzako ustiategietan lortutako nekazaritza produktuak ustiatzen dituzten nekazaritza industriak, nekazaritzako artisau industria eta 199.3 artikuluko a), b), d) eta e) paragrafoetan jasotako jarduerak:

– Eraikigarritasuna: 0,30 m²/m², 2.000 m²t-ko gehieneko eraikigarritasunarekin.

– Lotutako azalera: 5.000 m², lurzati bakarrean.

– Gehieneko okupazioa: lurzatiaren ehuneko 25.

– Gehieneko solairu kopurua: 1

– Altuera, gehienez, erlaitzera edo teilatu hegalaria: 5 m

– Mugetarainoko tartea: 10 m

– Errepideetarainoko tartea: 20/1990 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko errepideenak, eta Arau hauetako 206. artikulua ezarritakoak.

– Landa bideetarainoko tartea: otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili eta zaintzekoan, ezarritakoak.

– Abeltzaintza ustiategiek gorde beharreko tarte bereziak:

Herriguneetara: 500 m

Kontsumorako erabiltzekoak ez diren ur laster eta putzuetara: EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeke ALPn adierazitakoa.

Hornidura putzu eta iturburuetaraino eta eremu babestuetaraino: 500 m

Babespeko eremuak eta josteta parkeak: 500 m

– Gorozki solidoen biltegietatik gorde beharreko tarteak, gutxienez:

Ur-isurietara eta edateko uraren hodietara: 50 m

Bainu zonetara: 500 m

Herriguneetara: 500 m

Hornidura putzu eta iturburuetara: 500 m

– Lurraren erabilerari lotuta ez dauden abeltzaintzako ustiategiek hiri lurzoruaren mugarekiko distantzia hau gordeko dute: 500 m

Baldintza estetikoek dagokienez, eraikinaren ingurua errespetatu behar da, diseinuari zein erabiliko diren materialei dagokienez. Estalkia kolore gorriko teila edo xaflaz egin behar da.

Minda sortzen duten ustiategiek, ustiapen motaren arabera, simaurtegiak edo biltegitratzeko andel iragazgaitzak izan behar dituzte, zirkuitu itxiaren bidez ustiategiarekin konektatuta. Simaurtegi edo andel horiek bi hilabeteko hondakinak gordetzeko adinako edukiera izan behar dute, gutxienez. Euri urak behar bezala hustu behar dira, hondakin urekin eta simaurrekin nahasi gabe. Putzu iragazleak, gainezkabideak edo kolektore edo ubideetara irteera zuzenak dituzten beste irteera guztiak debekatuta daude.

Putzuek betetzeko behar duten denbora kalkulatuta, gutxienez maiztasun berarekin kenduko dira putzuetako lokatzak. Lokatz horiek behar bezala erabili edo deuseztatu behar dira.

Mindak biltegitratzeko andela eraikitzeke aukerarik egon ezean, ustiategiak behar diren al-daketak egin beharko ditu sortutako hondakina nagusiki solidoa izateko, likidoak xurgatzeko lastoa edo antzeko moduak erabilia.

Animalia hilak honela deuseztatuko dira: kare bizia duten lurperatze hobietan, errausketa labeetan, kontrolatutako hondakindegietan, edo antzeko instalazioetan. Horretarako proposatutako lekua eta irtenbidea zehaztu behar da.

Txerri azienden hazkuntzari lotutako jarduerak gai horren inguruan indarrean den legediaren arabera egingo dira.

Familia etxebizitzak, funtzionalki nekazaritzako ustiategi bati lotutakoak.

– Eraikin motak

Etxebizitza bateko edo biko etxeak.

Nekazaritzarako eraikinari lotutako etxeak, etxebizitza batekoak zein bikoak.

Eraikuntzaren tipologia, ezbairik gabe, adierazi den etxebizitza batekoa izango da.

– Etxebizitzari lotutako azalera, gutxienez:

0,50 ULUri dagokiena, 201. artikuluko 2. puntuan ezarritako estandarren arabera.

– Eraikigarritasuna: 0,10 m²/m², lurzati hartzailearen gainean neurtuta. Edozein kasutan ere, eraikuntza finkatuetan, nahiz eta dagoeneko nekazaritzako ustiategi batekin lotuta ez dauden, onartuko da haiek zabalagotzea beren azalera eraiki osoaren ehuneko 25ekin gehienez ere.

– Lurzati hartzailearen azalera, gutxienez: 1.000 m²

– Gehieneko okupazioa: lurzati hartzailearen ehuneko 10

– Gehieneko solairu kopurua: 2

– Altuera, gehienez, erlaitzera edo teilatu hegalaria: 7 m

– Mugetarainoko tartea: 10 m

– Errepideetarainoko tartea: 20/1990 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko errepidee-nean, ezarritakoak.

– Landa bideetarainoko tartea: otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili eta zaintzekoan, ezarritakoak.

– Tartea, gutxienez, ur ibilgu eta masetara:

Kontsumorako erabiliko ez diren ubide, urmael eta putzuetara: EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeke ALPn adierazitakoa.

Hornidura putzu eta iturburuetara: 300 m

Landa ingurunean egin beharreko onura publikoko edo interes sozialeko eraikuntza eta instalazioak:

• 1, 3 eta 4 zonetan dauden eraikinak: libre.

• Errepideetako elementu funtzionalak, osasun sorospenekeko postuak:

– Eraikigarritasuna: libre.

– Lotutako gutxieneke azalera: libre.

– Okupazioa: libre.

- Solairu kopurua: 1
- Altuera, gehienez, erlaitzera edo teilatu hegalerara: libre.
- Errepideetarainoko tartea: Arabako Foru Aldundiak ezarritakoak.
- Mugetarainoko tartea: 4 m
- Gainerako eraikinak:
 - Eraikigarritasuna: 0,10 m²/m²
 - Lotutako gutxieneko azalera: 5.000 m², lurzati bakarrean.
 - Gehieneko okupazioa: ehuneko 10.
 - Gehieneko solairu kopurua: 2
 - Altuera, gehienez, erlaitzera edo teilatu hegalerara: 7 m
 - Mugetarainoko tartea: 10 m
 - Errepideetarainoko tartea: 20/1990 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko errepideenean, ezarritakoak.
 - Landa bideetarainoko tartea: otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili eta zaintzekoan, ezarritakoak.
 - Tartea, gutxienez, ur ibilgu eta masetara:

Kontsumorako erabiliko ez diren ubide, urmael eta putzuetara: EAeko ibai eta erreka ertzak antolatzen ALPN adierazitakoa.
 - Hornidura putzu eta iturburuetara: 300 m
 - Errepideetako zerbitzuguneak:
 - Eraikigarritasuna: 0,050 m²/m²
 - Lotutako gutxieneko azalera: 5.000 m², lurzati bakarrean.
 - Eraikinek eta markesinek estalitako azalera, gehienez: ehuneko 30.
 - Gehieneko solairu kopurua: 2
 - Altuera, gehienez, erlaitzera edo teilatu hegalerara: 7 m
 - Errepideetarainoko tartea: 20/1990 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko errepideenean, ezarritakoak.
 - Landa bideetarainoko tartea: otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili eta zaintzekoan, ezarritakoak.
 - Mugetarainoko tartea: 10 m
 - Tartea, gutxienez, ur ibilgu eta masetara:

Kontsumorako erabiliko ez diren ubide, urmael eta putzuetara: EAeko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzen ALPN ezarritakoa.
 - Hornidura putzu eta iturburuetara: 300 m
 - Debekatuta dago lurretara hondakin ura botatzea, baldin eta eragina badu uren kalitatean.
- 2. Aurreko puntuan adierazitako parametroak hirigintzako erabilera edo jarduera baimendu bakoitzari dagozkio. Beraz, elkarrekin bateragarriak diren hainbat erabilera egon daiteke partzela batean, baldin eta guztira gehieneko muga hauek betetzen badira:

Nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenei lotutako erabilerak:

- Eraikigarritasuna: 1,40 m²/m², partzela hartzailearen gainean neurtuta.
- Gehieneko okupazioa: ehuneko 80, lurzati hartzailearen gainean.

Herri onurakoak edo gizarte interesekoak diren eraikin edo instalazioei lotutako erabilerak.

- Eraikigarritasuna: 0,20 m²/m²
- Gehieneko okupazioa: ehuneko 20

Zerbitzuguneak: Aurreko puntuan adierazitakoak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 10a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO